

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES  
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES  
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,  
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,  
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Nafarroak eta Estatuak Itun Ekonomikoaren BEZa doitzeko sistema aldatzea adostu dute

*Aldaketa honekin orekatu egiten da Volkswagenek esportatzen dituen ibilgailuak merkaturatzeko sistema berriaren eragina*

Lunes, 07 de mayo de 2012

Nafarroaren eta Estatuaren arteko Hitzarmenaren Koordinazio Batzordearen ordezkariak 2010-2014 bosturtekoan Balio Erantsiaren Zergaren doikuntza eraginkor izateko metodoaren aldaketa sinatu dute, aipatutako Itun Ekonomikoaren esparruan.

Nafarroako Volkswagen enpresak esportatzen dituen ibilgailuak merkaturatzeko sistema berriak izango duen eragina orekatzeko onartu da aldaketa hau. Izan ere, enpresak aldatu egin du 1994tik zuen lan egiteko modua, Taldeko gainerako enpresen modura egokitzeko, Nafarroako VW baitzen desberdin funtzionatzen zuen enpresa bakarra.

Orain arte, Nafarroako VWek Landabenen ekoizten zituen ibilgailuak merkaturatzeko eragiketak Bartzelonan kokatutako VAESA merkaturatze-sozietatearen bitartez egiten zituen eta, horren ondorioz, gero kanpora saltzen zirenen kasuan, Estatuko Zerga Agentziari zegokion ibilgailu horien fabrikazio-prozesuan sortutako BEZ itzultzea. Bestalde, Nafarroako Volkswagenek Nafarroako Zerga Ogasunari itzuli behar zion Bartzelonako enpresari saldutako ibilgailuen fakturatik sortutako BEZ.

Apirilaren 1etik aurrera, Nafarroako Volkswagen zuzenean esportatzeko prozedura orokorrari gehitu zaio, hau da, faktoria ekoizleetatik helmugara eta, beraz, Nafarroako Zerga Ogasuna izango da Volkswagenek esportatzen dituen ibilgailuetan sortutako duen BEZ itzultzeaz arduratu behar duena.

Nafarroaren eta Estatuaren artean adostutako aldagetari esker, arindu egiten da Nafarroako VWek fabrikatutako ibilgailuak merkaturatu eta esportatzeko sistemaren aldagetarik bi administrazioek beren gain hartuko duten zerga-eragina. Hala, Foru Komunitatean eragin hori 25 milioi eurotan mugatuta geratu da bosturteko honi geratzen zaizkion hiru aurrekontu-ekitaldietako bakoitzerako.

Nafarroako Gobernuaren aldetik Nafarroaren eta Estatuaren arteko Itun Ekonomikoaren Koordinazio Batzordea honako hauek osatzen dute: Ekonomia eta Ogasun Kontseilari Álvaro Miranda; Nafarroako Zerga



Nafarroako Jauregia.

Ogasuneko zuzendari gerente Idoia Nieves; Politika Ekonomiko eta Nazioarteko Politikako zuzendari nagusi M<sup>a</sup> Jesús Valdemoros; Aurrekontuko zuzendari nagusi Juan Franco; Ekonomia Zerbitzuko zuzendari Maite Domínguez; eta Araudien eta Zergen Garapeneko zuzendari José Javier Zabaleta Zúñiga. Estatuaren aldetik, Koordinazio Batzorde horretako kideak honako hauek dira: Administrazio Publikoen Estatu Idazkari Antonio Germán Beteta; Aurrekontuen eta Gastuen Estatuko idazkari Marta Fernández Currás; Ogasuneko Estatuko idazkari Miguel Ferre; Zerga Administrazioiko Estatu Agentziako zuzendari nagusi Beatriz Gloria Viana; Aurrekontuetako zuzendari nagusi Jaime Iglesias Quintana; eta Autonomia Erkidegoetako eta Tokiko Koordinazioko idazkari nagusi Enrique Ossorio Crespo.